

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2012ko urtarrilaren 13a. IX. urtea. 2.342. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Tolosako udal gobernuak dio aurreko udalak herritarrei bizkarra eman ziela

Agintean daramatzaten lehen sei hilabeteen errebasoa egin du Iriarte alkateak, udal gobernuko kideekin batera; balantzea «positiboa» dela nabarmendu dute zinegotziek

Etorkizunerako proiektu berriak aurkeztu dituzte; eredu aldaketa baten beharra aldarrikatu dute, «gutxiagorekin gehiago» egiteko asmoa azalduz **02**



Edurne Mendia, Lore Agirre, Ibai Iriarte, Iñaki Irazabalbeitia eta Hasier De los Rios zinegotziak, agerraldian. LURKIZU

Maddi Amiano Judoka

«Zortzi urte nituenetik egiten dut judoa; egindako lana aitortzea polita da»

Samaniegok eta Orixek antolatzen duten Elkartasun Krosean saritu dute altzotarra **03**

Intxurre pilota eskolak etzi jokatuko du BERRIA Txapelketako lehen jardunaldia

Alegia, Ikaztegieta eta Altzoko eskolako arduradunek taldea «nahiko ondo» ikusten dute **06**

Prest daude jada Leitzako Landa Goikoa eremuko 40 etxebizitzak

Bi urte iraun duten lanen ostean enpresa eraikitzaileak babeseko izaera duten etxebizitzetako giltzak eman ditu **07**

Iriarte jatebidea

- Astebukaerako menu berezia
- Sartu gure webgunean eta ikusi gure eskaintzak

www.iriartejatebidea.com • J.M. Goikoetxea, 34 • BERROBI
Tel.: 943 683 078

Helduentzako Jertsea:
lehen **29,5 €**
orain,
eskaintza berezia

25 €

Kolorea: beltza
Gizon eta emakumeen modelok

Neurriak:

- Gizonak: S-M-L-XL-XXL
- Emakumeak: S-M-L-XL

hitzaren jertsea
Noiz eta nola egin eskaria?

- TELEFONOZ: 902-82 02 01
- POSTAZ: harpidetza@hitza.info

* Jertsea probatu nahi baduzu, zatoz HITZAren bulegora

Lehen sei hilabeteotako balantzea egin dute Bilduko eta Aralarreko zinegotziek, alkatearekin batera

Itzea Urkizu Tolosa

Bilduk eta Aralarrek osatzen duten udal gobernuak bete du lehen seihilekoa agintean, eta maiatzetik honako ibilbidearen balantzea egin dute prentsaurrean. Aurreko udalak utzitako «zorrak», «zerbitzu publikoen pribatizatzea» eta «herritarrei bizkarra emanez garatutako udal politika» nabarmendu dituzte, 2012rako erronkak azaltzearekin batera.

Pasa den ekainean agintea hartu zuten geroztik hona, «udalaren beraren egoera ezagutzea» lehentasun izan dutela nabarmendu dute. Besteak beste, «egoera ekonomiko larria» dagoela azpimarratu dute, 17 milioi euroko kopurua gogora ekarri. Bide beretik, aurreko udal gobernuak lidergo politikorik ez zuela izan diote, «berezi eskualdeko industriak bizi duen atzerakada nabarmenaren aurrean».

PNV-EAJ buru zuen aurreko udal gobernuaren «zerbitzu publikoen pribatizatzea» ere gaitzetsi dute Bilduk eta Aralarrek, udalaren kudeaketa azpikontratan oinarritu zutela salatuz. Euren udalera iritsi zirenean, euskararen aldeko jarduerak geldirik zeudela ere nabarmendu dute. Finen, aurreko legealdikoa, «herritarrei bizkarra emanez garatutako udal politika» zela diote.

Egindako lanarekin gustora

Bilduko eta Aralarreko udal ordezkariak gustora azaldu dute euren burua, sei hilabeteotan egindako lanarekin; beraz, «balantzea oso positiboa» dela diote, «urrats sendo eta erabakiorrak» ematen hasi direla uste baitute.

Batetik, udal gobernuaren lehen urratsa «udalaren atek irekitzea» izan dela diote, «bestelako politika posible dela erakutsiz»; ildo honi jarraituz, lehen 100 egunen inguruko batzarra, plan ekonomiko finantziarioaren aurkezpena nahiz Larramendiko urbanizazioaren inguruko



Elosegi parkearen desjabetzea konpontzeko akordioa lortu du udal gobernuak. I. TERRADILLOS

Aurreko udalaren «zerbitzu publikoen pribatizatzea» salatu du udal gobernuak

parte-hartze prozesua gogora ekarri dituzte. «Emandako urratsak norabide zuzenean izan direla» uste dute. «Ikasten joango gara ibilieren ibiliz», dio Ibai Iriartek.

Ekainetik hona udalaren berantolatketan egin duten lanari ere begiratu nahi izan diote udal gobernuak kideek: «Gobernuak azpikontratazioaren aurkako, eta zerbitzu publikoen zein kalitatezko enpleguaren aldeko urrats sendoak eman ditu, lanpostu zerbital berriaren onarpenarekin». Honen harira, Bilduko eta Aralarreko ordezkariak «kezka» azaldu dute agerraldian, Espainiako Gobernuak lanpostuen arautzearen inguruan onartu berri duen dekretuaren aurrean, «Tolosako Udalarri, politika neoliberal hutsak inposatzen dizkio-lako».

Hasi berria den 2012. urteko aurrekontuak ere hizpide izan dituzte, egoera ekonomikoa «larria» izan arren «gastu soziala bermatu» dutela baitiote; honi, «oposizioaren aurkako jarrera aurreiztuz jositako erabaki politikoen gainetik soilik uler» daitekeela

gaineratu diote zinegotziek eta alkateak.

Azkenik, duela 22 urte Elosegi parkearen inguruan hasi zen auzia konponbidean jarri dutela azpimarratu du Ibai Iriartek: «Akordioa oso positiboa izanik ere, inbertsio honek zama handia sortuko dio udalari». Parkearen erabilerari dagokionez, alkateak naturgune ederra dela dio, eta herritarrei irekia behar duela izan. Dena den, horretarako beharrezkoak diren eraberritze lanek inbertsio handia eskatzen dutela uste du.

«Gutxiagorekin gehiago»

Urte berrirako udal gobernuak zenbait lan ildo aurkeztu ditu. Ibai Iriarte alkatea, eredu aldaketa baten beharrez aritu da besteak beste: «Gutxiagorekin gehiago egitea da gure erronka, eta horretarako, ezinbestekoa da herritarren parte-hartzea eta elkarla-

na». Bide beretik, aurtun «proiektu handien aroa» hasiko dela nabarmendu dute: «Pertsonen eskubideak eta beharrak lehenesten dituen».

Lehenik eta behin, gatazkaren konponbidean ezinbestekotzat dute Gernikako Akordioaren garapena: «Ezinbestekotzat jotzen dugu bertan finkatutako ibilbidean aurrerapausoak ematea, bereziki preso eta iheslarien eskubideen defentsan, biktima guztien memorian eta aitortzan, eta Euskal Herriaren eskubide demokratikoen garapenean».

Herritarren parte-hartzearekin lanean jarraituz, Larramendi auzoko prozesuak garrantzia berezia izango du, izan ere, ekainearako amaitu beharko du auziak. Proiektuaren inguruko erabakia erreferendumaren bidez erabaki nahi du udalak, eta hau auzotarraren artean gauzatzeko legezko bideak aztertzen ari dira. Hala-

ber, San Esteban auzoaren etorkizuna erabakitze prozesua ere abian jarriko dute aurtun.

Ekonomiaren eta enpleguaren sustatzea bideratzeko, itun sozioekonomikoa adostea da udal gobernuaren helburuetako bat.

Hondakinen kudeaketari dagokionez, Europar Batasunak bultzatzen duen Zero Zabor politikari heldu nahi diote. Auzi hau mankomunitatearen eskumena den arren, udalak honen inguruko txosten teknikoak eskatu du, Tolosaren eta eskualdearen beharretara molda daitekeen sistema aukeratzeko; hondakinen birziklapena gaur egungo %35etik, %80ra igotzea lortu nahi dute.

Euskararen normalizazioa ere udalaren lan ildo nagusietako bat izango da 2012ari begira: UEMAko kide izateko eskaeraz gain, udal erakundeetan erabilera planak abian jarri nahi dituzte, eta gaztetxoekin ere euskararen erabilera sustatzeko jarduerak antolatze asmoa dute; kirolaren esparrua erabiliko dute, bereziki, honetarako.

Hizkuntzarekin batera, kultura ere erronka berrien barruan sartu du udal gobernuak. Horrela, tolosarrak kultur kontsumitzaile izateaz gain, kultura sortzera bultzatu nahi dituzte; eragile arteko lan bateratuak indartzeko izango da helbururik behinena.

Inbertsioei dagokionez, gainera, udalak «ahalegin berezia» egingo duela nabarmendu du, Berazubi, Bidebieta, Amarotz, Euskal Herria plaza, edota Abastoko eraikineko lanekin. Azken honetan, bigarren solairuaren zati bat behintzat, haur eskolaren beharrei erantzuteko erabili beharko dutela azaldu du Iñaki Irazabalbeitiak, gaur egungo lekua txiki geratu baita: «Hala ere, tokia badago gauza gehiago egiteko eta ikusi egin beharko da».

Azkenik, Berdintasun ordenantza betetzeko eta osasun zerbitzu publikoaren alde lanean jarraituko dutela azaldu dute agerraldian, Bilduko eta Aralarreko zinegotziek.

Mendian hasiko dute Ero Etxekoek 25. urtemugaren jaia

Larunbatean txotxongiloak izango dira Leidorren, eta mendi irteera igandean egingo dute

I.Urkizu

Ero Etxe elkarteak antolatzen duen krosak 25 urte beteko ditu aurtun, eta ospatzeko antolatutako egitarau berezia asteburu

honetan hasiko da, haur eta gazteei begirako jarduerekin.

Bihar, txotxongilo emanaldia ikusgai izango da Leidorren. 4 urtetik 7 urtera bitarteko haurren prestatutako ikuskizuna da Valentziako PTV Clowns taldearen *Enamorise*. Topic-en eta TE-Eren laguntzaz, 17:00etan hasiko da ikuskizuna, eta sarrerak euro leko prezioa izango du.

Iganderako, berriz, hilaren 15erako, mendi irteera antolatutako elkarteak. Ibilbidea 9 urtetik

gorako gaztetxoentzat, nahiz euren gurasoentzat prestatu dute.

09:00etan Trianguloa plazatik irtengo dira, eta Pisuagaraabiatuko dira. Miserikordia zaharretik igaro ondoren, telegrafotik pasako dira Loatzora iristeko. Hiru ordu eta erdi inguruko ibilbidea izango da joan-etorria. Bueltan, hamaiketako egingo dute Zerkausian, 12:00ak aldera; salda beroa banatuko dute.

Datorren asterako ere, hainbat jardura antolatuko dituzte elkarteak.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Maddi Amiano ◦ Judoka

Altzoko gaztea 8 urte besterik ez zituela hasi zen judoan; harrezkero sari asko irabazi ditu, eta orain gutxi bere kirol ibilbide oparoarengatik saria eman diote.

«Espainiako Txapelketa da nire aurtengo helburua»

Agurtzane Belaunzarán

Tolosan egindako XIV. Elkartasun Krosean lortu du azken saria Maddi Amianok (Alto, 1993).

Sari berezia da, kirol ibilbideagatik emandakoa baita. Izan ere, 10 urtez judoan egindako kirol ibilbideagatik saritu dute. Gasteiz eta Alto artean dabil azken hila beteetan ikasketak eta judoa uztauz, denboraldi berrirako prestaketan ari den bitartean.

Beste sari bat duzu eskuartearen, urteari amaiera emateko sari polita, ezta?

San Silvestre krosean eman zidaten Samaniego eta Orixe ikastetxeek nire kirol ibilbideagatik.

«Ez nuen San Silvestre krosean emandako saria espero, oso pozik jaso nuen»

Eta oso pozik jaso ere, espero ez nuen saria izan da eta. Zortzi urte nituenetik egiten dut judoa, gustuko kirola dut eta polita da egindako lana aitortzea.

2012. urteko denboraldiari begira egongo zara. Zeintzuk dira zure helburuak aurtengoa?

Aurten lesio luze batetik nator

eta gogotsu nago. Espainiako Txapelketan egotea da helburu nagusia. Horretarako, urtarrilean jokatu den Gipuzkoakoa irabazi beharko nuke lehenengo eta gero, otsailean Euskadiko Txapelketan ere garaipena lortu beharko nuke. Maiatzean jokatu da Espainiakoa. Hemen irabaziz gero, Europako atea irekiko zaizkit, baina Espainiakoan lehenengo postua lortzea zaila izango da. Judoka onak baitaude estatuan.

10 urte daramatzazu judoan, zenbat sari lortu dituzu urte hauetan?

Hogeitik gora sari ditut etxean. 2006. urtean Espainiako Txapelketan banakakoan eta binakakoan irabazi nuen. Sari horiek ate asko ireki zizkidaten. Harrezkero, lau aldiz izan naiz Espainiako Txapelketan. 2009. urtean brontzea lortu nuen, eta ni baino maila bat altuagokoen aurka lehiatu nintzela nabarmendu behar da.

Gerriko beltza zara, judoan gorengo maila.

16 urte betetzean azterketa egiteko aukera dago eta gainditu nuen. Gerriko beltzarekin lehiatzen dut orain.

Ikasketak direla-eta Gasteizen zaudete orain, nola antolatzen dituzu entrenamenduak?

Astean 5-6 ordu entrenatzen ditut. Gasteizen bi egunez eta Tolosan betiko entrenatzailearekin ostiraletan. Horrez gain, ostiraletan Amezketa umeak entrenatzen ditut, 38 ume ko bi talde ditut.

Kirolarekin lotutako ikasketak aukeratu dituzu...

Jarduera Fisiko eta Kirolaren Zientzien fakultatean ikasten hasi naiz, hauxe dut lehen urtea. Argi nuen, kirolarekin zerikusia zuen zerbait ikasi nahi nuela. Judotik bakarrik bizitzea ia ezinezkoa da eta atea ireki behar dira.

Nola ikusten duzu judoko moduan zure etorkizuna?

Judotik bizitzeko hoberenen artean egon behar da eta dedikazio

«2006ko Espainiako Txapelketan jasotako sariek atea asko ireki zizkidaten»

osoa ekaini, gainera. Ziurrenik aurtengoa izango da nire azken urtean txapelketetan. Datorren urtean junior maila atzean utzi eta 48 kiloz gorakoetan aritu beharko nuke, orain arte 44 kilo azpikoan lehiatu dut-eta. Hala ere, urteak berak esango dit noraino iritsiko naizen. Pixkanaka gutxi-



A. BELAUNZARAN

tuz goaz eta geratuko direnak onenak dira.

Emakume askok praktikatzen al du judoa?

Neska askok praktikatzen dugu judoa, esaterako, Tolosan neska gehiago gara entrenamenduetan. Hori bai, lehiari gutxiago gairela esan behar da.

8 urte besterik ez zenituela hasi zinen judoan egiten. Zergatik aukeratu zenuen kirol hori?

Denek egiten didate galdera bera, nire anaia txikitik oso mugitua zen eta medikuren batek gomendatu zion. Ni ere bere aitzakian hasi nintzen eta oso gustukoa dudana kirola da. Kirol bortitza dela dirudi, baina ez da horrela. Jendeak karatearekin nahasten du eta judoan giltzak egitea da kontua, behin ere ez da aurkaria jipoitzen.

◦tolosa@hitza.info

Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean

liburua erosteko aukera duzue:

- **Liburudendetan:**

Prezioa 21 € eta harpidedun txartelarekin 18 €

Anoetan: Kuku-lore liburudendan.

Ibarran: Lurdes liburudendan.

Tolosan: Aramburu liburudendan, Elkar liburudendan,

Babel liburudendan eta Elkartasun dendan.

Villabonan: Kazetaria liburudendan.

- **HITZAko bulegoan:**

Prezioa 18 € eta harpidedunek 15 €

- **Eskaintza berezia**

HITZAren egoitzara etortzean, '1936ko Gerrako Oroitzapenak' liburu ere eskuratu ahal izango duzue: prezioa 10 € eta harpidedunek 8 €.

Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean + 1936ko Gerrako Oroitzapenak, bi liburuak, 25 €, harpidedunek 20 €.



Merkealdia hasi da, eta jende asko dabil dendaz denda erosketak egiten. Udazkeneko hilabete txarrak atzean utzi, eta Tolosako merkatariak orokorrean, «gustura» daude Gabon egunetan izandako salmentekin.

Pagotxa onenaren atzetik

Eneritz Maiz Tolosa

Merkealdia iritsi da eskualdera ere. Eguberrien ostean, gure herrietako dendek Gabonetako apaingarriak, merkealdia iragartzen duen kartelengatik aldatzen dituzte. Hala ere, azken urteetan, eta egoera ekonomikoak eraginda, inoiz baino goizago ikusten ditugu beherapenak beraien erakusleihoetan. Gabonetako oparien zurrumbilatik atera ostean, jende asko egoten da merkealdia noiz hasiko zain.

Ofizialki larunbatean hasi zen merkealdia, eta martxoaren 31 bitartean luzatuko da. Dirua aurrezteko helburuarekin, aurrez begiz jotako jertse, beroki, oinetako edota barruko arropa hori erosteko aprobetxatzen dute merkealdia. Hala ere, beti ez da suerte bera izaten, eta begiz jotako hori falta egiten da.

Tolosako lau merkatarietako hitz egin du HITZAK, eta orokorrean, «pozik» agertu dira dendariak. Aralar Kirolak, Nerea Lentzeria, Lizarribar Oinetakoak eta Kimetz arropa dendako arduradunek Gabon egunetako salmenten balantzea, eta merkealdiko lehen egun hauen balorazioa egin dute.

Nerea Lentzeria dendako Eguzki Tobes, «oso pozik» agertu da abenduan egindako salmentekin, eta baita, beherapenetan daramatzaten egun gutxi hauetan izaten ari den salmentekin ere. Beste urteekin alderatuz Gabon egunak beste urteekin alderatuta «ezberdinak» izan direla adierazi du: «Jendea banatuago etorri da, eta lasaiago ibili gara, baina mugimendua egon da». Gogora ekarri du, beraiek Erregeetarako izaten dituztela normalean salmenta gehienak, baina aurten Olentzeroetarako ere ondo saldu dutela azaldu du.



Tolosako kaleetan jendearen joan-etorria nabaria da; merkealdiko lehen egunetan, erakusleihoetan geldialdiak eginez dabil jendea. E. MAIZ

Urte guztian zaintzen dituela bezeroak azpimarratu du Tobesek, «gure bezeroa langile jendea da, eta beherapenez gain, urte osoan modu onean edukitzen ditut, eta uste dut hori baloratzen dutela nire bezeroek», azpimarratu du.

Krisi egoera aipatuta, pezetetatik euroetara pasaz geroztik, aldaketa nabaritu duelakoan dago Nerea Lentzeriako arduraduna.

Udazkeneko eguraldia, etsai

Udazkeneko eguraldiak ez die baxterre lagundu dendari askori. Kimetz arropa dendakoek eta Lizarribar Oinetakoak dendakoek gauza bera aipatu dute. Ez du hotzik, eta euririk egin, eta jendeak ez du neguko oinetakoak edota arropa erosteko beharrik sentitu. Baina, abenduan buelta eman zioten egoerari, eta jendea neguko arropa edo oinetakoak erostera animatu da.

Lizarribar Oinetakoak denda-

ko Leire Usandizagak adierazi duenez, «Gabon hauetan ondo saldu dugu, bai Olentzeroetarako, eta baita Erregeetarako ere». Urte guztian krisia dela eta, jendea triste dago, eta mezu negatiboez inguratutako egunak albo batera utzi, eta «jendea erosketak

Egoera ekonomiko eskasa alde batera utzi, eta jendea erosketak egitera animatu da

egitera animatu egin da, eta alai ibili da. Ilusioarekin etorri dira dendara, eta oso ondo lan egin dugu».

Asteartean hasi ziren merkealdiarekin, «pare bat egun hartzen ditugu prestaketarako eta asteartetik hona jendea animatu egin da erosketetara», gaineratu du Usandizagak.

Juanjo Ruiz Kimetz arropa dendako arduraduna ere gustura

agertu da. Bai Gabonetako salmentekin, eta baita merkealdia hasteko moduarekin ere: «Larunbatean jende asko ibili zen dendan, eta merkealdia fuerte hasi dugu».

Udazken eskasaren ostean, abenduan salmenta onak izan dituzte, eta merkealdietarako «material asko» ere ez zaiela geratzen esan du.

Askok alde zuzenetik egin dute dendatik buelta gustuko zerbaitekin, «pare bat ote dagoen ikusteko, eta behin beherapenak jartzen dituztenean, orduan joaten dira erostera. Baina, bestelako kasuak ere badira.

Aralar Kirolak kasuan, Anate Iturralde «ezkor» agertu da Gabon Egunetan izan duten salmentekin. Eguraldia aipatu du: «Garai honetan, elurrik eta euririk ez egiteak eragina du».

Gabon egunen balorazioa, ez du hain ona egin: «Eguberri egunetako salmentetan nahiko juxtu

ibili gara». Aralar Kirolak dendakoak, berriz, oraindik ez dira sartu merkealdian. Prestaketa lanean daude, eta datorren astean jarriko dituzte euren produktua merkeago erosteko aukeran.

Merkealdia nola aurreikusten dituen galdetuta, «eguraldiak orain artean bezala jarraitzen badu, ez dut espero aldaketa handirik», gaineratu du Anate Iturralde.

Batzuek gustuko dute dendaz denda erosketak eginez ibiltzea, eta ez diete merkealdiko aukerei ihes egiten uzten. Baina, erosketak egitea gorroto duenik ere bada.

Krisiak krisi, erosketak egitera animatzea beharrezkoa izango da, eta merkealdi hauetan ere dirua gastatzeari uko egingo ez dion jendea izango da. Baina, hala eta guztiz ere, denentzat euria ez du berdin egiten, edo hori dirudi behintzat.

• tolosa@hitza.info

euskarazko **web guneak** diruleguntzak

BALDINTZAK

Publiko zabalen zuzendaria behar du web guneak. Zergak Tolosan pagatu. Estakak oso onerik ezak diren lekuetan.

2012ko martxoaren 13a

Tolosako UDALA

947 89 34 52

webgune@tolosaldea.info

LARUNBATA eta GANUELAN egunetan

TOLAR SAGARDOTEGIA

Urtarrilak 14 **TXOTX BIREKIERA** bertsoari eta trikulariari.

SARASOLA

ASTEASU

Tel.: 943-69 02 83 / 943-65 28 22

639-77 84 20

@ **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA** egunkaria internet bidez irakurtzeko aukera dago. Facebook eta twitter sare sozialen bidez ere jarraitu daitezke eskualdeko albisteak. Bestalde, zuen herri, auzo edota elkarteetako albisteak berri ere bidali dezakezu, eta baita zuek antolatutako ekitaldietan ateratako argazkiak ere. Idatzi mezu, tolosaldean@hitza.info helbide elektronikora.

www.tolosaldea.hitza.info

Indarkeria matxistaren aurkako eztabaida bilera izango da gaur, Tolosan

‘Zapalduen Antzerkia’ metodologian oinarrituko dira 17:00etatik aurrera, kultur etxean

Rebeka Calvo Tolosa

Gaur arratsaldean Tolosako kultur etxeko areto nagusian indarkeria matxistarekin amaitzeko ekimen berezia izango da. Hitzordua 17:00etan izango da, eta Mugarik Gabe elkarteak antolatuta du.

Ekimena eztabaida bilera ireki bat izango dela azaldu dute, eta herritarren parte hartzea ezinbestekoa izango dutela diote. *Indarkeria matxista guztiei kaña!* lelopean Augusto Boalen *Zapalduen Antzerkia* metodologian oinarrituko dira.

Horiek horrela, bertan biltzen direnak aipatu metodologiaren haritik antzerki teknikak eta metaforak erabiliko dituzte «emakumeenganako biolentzia ikusezina eta gizarte patriarkalean dauden biolentzia moduen inguruko bizipenak esperimendatzeko».

ko». Gaur arratsaldean, hortaz, «taldean bizipenak adierazteko antzezlanak» proposatuko dute.

Antolatzaileek azaldutakoaren arabera, ez da beharrezkoa aurretik izena ematea, baina zenbat pertsona izango diren jakiteko *leire.berdintasuna@gmail.com* helbidera idazteko, edo 943670383 telefono zenbakira deitzeko eskatuta dute.

Metodologia berezia

Zapalduen Antzerkia metodologia, TDO bezala ezagutzen dena, Brasileko Augusto Boal antzerkigile, aktore, zuzendari eta pedagogoa sortu zuen 60ko hamarkadan. Gaur egun bere semeak, Julian Boalek, jarraitzen du teoria hau lantzen.

Teknika honen barruan hastapen joko batzuk proposatzen dira, bai aktore direnentzat eta baita ez direnentzat ere. Teknika hauen helburua da ikuslea ekintza dramatikoaren barruan kokatzea, eta bilakaera honen bidez, ikuslea benetako ekintzak prestatzera laguntzea. *Zapalduen Antzerkiak* jasotzen duenez, hau egitean ikusleak askatasuna izango du.

Anoeta Zero Zaborren aurkezpena egingo dute bihar

Udalak sortu du taldea «gizartean sortu den eztabaidaren» harira; herritarrak gonbidatu dituzte parte hartzera

R.C. Anoeta

Anoeta Zero Zaborrek aurkezpena egingo du bihar, 12:00etan udaltxeko pleno aretoan. Aurkezpenean taldea sortzearen arrazoiak eta herri mailako helburu eta nahien inguruko informazioa emango dute, eta herritarrak gonbidatu dituzte parte hartzera. Zentzu honetan udalak esan du bat datorrela gai honen inguruan sortu den eztabaidarekin. «Arazo honen aurrean udalak zaborraren inguruko informazioa zabalteko talde bat sortzeko inizatiba hartu du», azaldu du.

Mikel Chamizok Twitterreko lehen musika egutegia egin du

Musikari tolosarrak pasa den urtean egin zituen egutegia osatzen duten musika-konposizio txikiak

R.C. Tolosa

Mikel Chamizo (Tolosa, 1980) musikagile gazteak Twitter sare sozialeko lehen musika egutegia sortu du.

365 musical tweets izena du proiektuak, eta hau osatzeko iaz, egunero-egunero, musika tweet bat publikatu zuen Twitter sareko bere bi kontuetan. Piano pieza motzak dira guztiak, eta Tolosako musikagileak bere egunerokotasuna eta bizipenak islatu ditu lan hauetan.

Tolosarraren helburua proiektu honekin musika internet bidez

zabaltu daitekeela azaltzea da, eta horretarako, musika konposizio luzeak sartu baino, nahiago izan zuen, lan motzak sortu eta zabaltu.

Proiektua hasterakoan, 2011. urteko urtarrilaren 1ean, musika piezek 140 nota zituzten, mezuen 140 karaktereak bezala, baina gero, denbora muga jarri zuten, eta 30 eta 40 segundoren arteko luzeza dute tweet-ek, luzeena 2 minutu eta 30 segundo irauten duen pieza delarik.

Musikeneko ikasle oia

Mikel Chamizo Musikene Euskal Herriko goi mailako eskolan ikasi zuen, eta hainbat komunikabideetan idazten du.

Era berean, Mundoclasico-ko zuzendari ordea da, internet bidez musika klasikoak zabaltzen duen egunkaria da, hain zuzen, Mundoclasico.

→ Laburrak

Euskara eskoletan izena emateko azken eguna

ALEGIA › Udalak etorkinei zuzendutako alfabetatze eta euskara eskolak antolatuta ditu. Gaur da izena emateko azken eguna eta kultur etxean edo gizarte zerbitzueta jo behar da. Udalak esandakoaren arabera, eskaintza honen helburua «etorkinek herrian hartu-emanak behar bezala izateko hizkuntzarekin dituzte mugak» saihesten laguntzea da. Otsailan hasiko dira eskolak.

Ihoteetako atxauren kalejira prestatzeko bilera

LEITZA › Leitzako Ihoteak iristear diren honetan, jai egun haueetan burutzen duten atxaurentuen kalejira prestatzeko bilera deitu dute. Bilkura bihar izango da 19:00etan, Aurreran. Kalejirako arduradunek galtzearegon den ohitura hau berreskuratu nahi dute, horregatik animatzen dituzte herritarrak parte hartzera. «Badakizue geurea dugun ohitura hau lantzen eta berreskuratzen ari garela. Bada, anima zaitezke eta etorri bilera. Bitartean, irudietan oinarrituz antzeko atxaureak prestatzen hastea ere ez legoke gaizki», azaldu dute.

Garenak
x2
izateko

Lagun iezaguzu
harpidedun berriak egiten

ekar ezazu
hitzaren
harpidedun
berri bat

Gainera, gertukoak zoriontzeko
agur bat oparituko dizugu
HITZAn argitaratzeko.

HITZA, euskarazko
herri informazioaren leihoa

Harpidedun berria urtarrilaren 31 baino lehen ekartzen dutenentzat.

eta **opari**
bana
jasoko duzue

HITZAren
jertsea
harpidedunak



Mahala **saskia** harpidedun berriak

EDARITEGIA
Egarrri

Urtarrilak 14, Larunbata • 16:00etan
MUS TXAPELKETA

ERNIOBIDEA, 7 **ZIZURKIL** Tel.: 943 69 62 57

Villabonako Udalak kultur ekitaldi ugari antolatu ditu

Jesusen Bihotza ikastolak, bere aldetik, hilaren 23tik 29ra luzatuko den kultur astea antolatu du

A. Imaz Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Udalak antolatzen duen kultur programazioan antzerkia, zinea eta KZguneko ikastaroak nagusitzen dira, urtarilean. Horiakin batera, Jesusen Bihotza ikastolak antolatzen duen kultur astea aipatu behar da, hilaren 23tik 29ra luzatuko dena. Bertan, beste hainbat ekitaldirekin batera, Sukaldaritza ikastaroa eta Argazki Lehiaketa azpimarratu behar dira. Herritarrek bertan parte hartzeko aukera izango dute, baina horretarako gaur joan beharko dute idazkari-tza bulegora, izena ematera.

Ikastaro eta mintegiak

Gurea antzokian eta KZgunean izango dira hileko ekitaldi nagusiak. Zinea eta antzerkiari dago-kionez, haurrek euren txokoa izango dute. Alde batetik, txo- txongilo ikuskizuna egongo da txikienentzat Gurean, hilaren 29an, 12:30ean. Bestalde, igande arratsaldetan zinea izango dute.

Helduek euren ohiko zine ordu- tegian, *La voz dormida* ikusteko aukera izango dute asteburu honetan. Larunbatean 18:30ean eta 22:15ean; igandean 17:00etan eta 19:30ean, eta astelehenean,

Iragarki laburrak

LANA

■ **Interinoa.** Adineko pertsona bat zaintzeko, interino moduan arituko den pertsona euskalduna behar dugu Errezilen. Interesatuek, deitu 699 145 856 telefono zenbakira.

SALGAI

■ **Etxe adosatua.** Tolosan etxe adosatua salgai: eguzkitsua, lau gela, bi bainugela, komuna, egongela-jangela handia, suk-aldea, bi autorentzako gara- jea, txokoa, jardina eta trastele- kua. Interesatuek, deitu 678 267 657 telefono zenbakira.

■ **Etxebizitza.** Tolosako Belate auzoan, estreinatzeko dagoen etxebizitza salgai dago. Prezioa negoziagarria da. Interesa du- tenek, 660 895 600 telefono zenbakira deitu dezakete.

21:30ean. KZgunean ikastaro eta mintegiak antolatu dituzte. 20 or- duko internet ikastaroa, dohai- nik, hilaren 18tik 31ra bitarte bu- rutuko da, 11:00etatik 13:00etara. Mintegien kasuan, egun zehatz- tan gai zehatzak aztertuko dituz- te, eta guztiak euskaraz. Hilaren 16an, *doodle* zer den eta nola era- biltzen den azalduko dute, 11:00etatik 13:00etara. Hilaren 17an, *blogger* eta *skypen* txanda izango da, lehena 09:00etatik 11:00etara, eta bigarrena 11:00eta- tik 13:00etara. Hilaren 30ean izan- go da hurrengo mintegia, *ebay*, 09:00etatik 11:00etara. Azkena, hi- laren 31koa, *paypal* buruzkoa izango da, aurrekoaren ordu-tegi berean.

↓ Egitaraua

ANTZERKIA

■ **Hilak 29, igandea.** *Katilluka- dak* Gurea antzokian. Haurren- tzako txotxongilo emanaldia 12:30ean. Sarrera: 4,5 euro.

ZINEA

■ **Hilak 14, 15 eta 16.** *La Voz dor- mida* Gurea antzokian. Sarrera 4 euro. Ikusleen egunean, aste- lehenean, 3,5 euro.

■ **Hilak 15, igandea.** *Jonny En- glish* haurrentzako zinea Gurea antzokian, 16:30ean. Sarrera: 2,5 euro.

■ **Hilak 21, 22 eta 23.** *Un meto- do peligroso* filma Gurea antzo- kian. Sarrera 4 euro. Ikusleen egunean, astelehenean, 3,5 euro.

■ **Hilak 22, igandea.** *Alvin y las ardillas* haurrentzako zinea Gu- rea antzokian, 16:30ean. Sarre- ra: 2,5 euro.

■ **Hilak 28, 29 eta 30.** *Un dios menor* Gurea antzokian. Sarrera 4 euro. Ikusleen egunean, aste- lehenean, 3,5 euro.

KULTUR ASTEA

■ **Hilaren 23tik 29ra.** Jesusen Bihotza ikastolaren kultur as- tea.

KZGUNEA

■ **Hilaren 18tik 31ra.** Internet ikastaroa, 11:00etatik 13:00eta- ra.

■ **Hilaren 16, 17, 30 eta 31.** Min- tegiak goizetan. *Doodle*, *blog- ger*, *skype*, *ebay* eta *paypal* eus- karaz. Informazio gehiago esku- ratzeko deitu 943 57 17 58 telefono zenbakira.

Intxurre pilota eskolako kideek etzi ekingo diote BERRIA Txapelketari

Bidaniako Aurrera Saiaz eta Amezketako Zazpi Iturri bigarren kanporaketan sartuko dira lehian

Asier Imaz Alegia

XI. BERRIA Txapelketaren lehen jardunaldia Intxurrek hilaren 15ean, etzi, jokatu du Iurretan (Bizkaia), bertako taldearen aurka. Alegia, Altzo eta Ikaztegieta- ko pilotariz osatua dagoen Intxu- rre pilota eskolatik azaldu dutenez, ez dute aurkariaren in- guruko informazio gehiegi: «Txap- elketa honetan fitxaketak egite- ko aukera dago, eta nagusien mailan bi pilotari fitxatzeko asmoa azaldu zuten Iurretako Olaburu- koek. Egia esan ez ditugu asko ezagutzen, eta ez dakigu zein pilo- tariekin irtegi diren nagusien maila horretan».

Intxurreko bikoteekin esperan- tza dutela azaldu dute taldeko ar- duradunek: «Maila bakoitzaren nabarmentzen den pilotariren bat dugu. Ondorioz, nahiko ondo ikusten dugu taldea, eta ea aurre- ra egiteko aukerak ditugun. Na- gusien mailan fitxaketak egiteko aukera dagoenez, bikote oso in-



Iaz, Zazpi Iturri taldeak irabazi zuen BERRIA Txapelketa. A. CANNELADA

dartsuak egon daitezke, eta hori erabakigarria izan daitekeela ere uste dugu».

Kanporaketa jardunaldi baka- rra jokatu du, eta oraingoa, eskualdeko taldeari etxetik kan- po jokatzera egokitu zaio. Intxu- rrek honako pilotariekin ekingo dio BERRIA Txapelketari: Kade- te mailan, Larrea eta Luzuriagak osatuko dute bikotea; Jubenil mailan, Artola eta Muruak eta Nagusietan, Urretabizkaiaik eta Esnaolak.

Irabazlea nor den jakiteko, Na- gusien partidak garrantzi berezia izango du. Lehen bi partidak gal- du eta Nagusia irabazten due- nak, aurrera egiteko aukera izan- go du, partida guztien puntuak pi-

latu eta tanteoa aldekoa badu. In- txurrekoen esanetan, hau azken partidari balioa emateko egiten da. Intxurre iaz bigarren kanpo- raketan txapelketatik at gelditu zen, eta aurten emaitza hobea lortzeko asmoa dute. Aurrera Saiaz eta Zazpi Iturri, eskualdeko beste ordezkariak, bigarren kan- poraketan hasiko dira lehian.

Txapelketatik aparte

Intxurreko infantil, kadete, jube- nil eta nagusiek, bestalde, parti- dak jokatu dituzte gaur eta bihar Alegian, Altzon eta Ikazte- gietan. Partidak arratsalde izan- go dira, Altzon 16:00etatik aurre- ra eta beste bi herrietan 19:00eta- tik aurrera.

Irudia ◉ Ibarra



CAO DE BENOSEKIN HIZKETAN

Ibarrako Autoeskola Antikapitalistako kideek Alejandro Cao de Benosekin elkartzeko aukera izan zuten astelehen honetan, Herrialde Katala- netan. Torredembarako kafetegi batean elkartu ziren Autoeskolako kideak, eta Ipar Koreako erre-

alitate teorikoa ezagutzeko aukera izan zuten bertan. Cao de Benos kataluniarra, korear gober- nu sozialistako ordezkaria da, kanpo harreman- tarako ordezkaria. Gobernu horretan dagoen mendebaldeko ordezkari bakarra da bera. A.I.



Landa Goikoan hiru eraikin berri egin dituzte. I. TERRADILLOS

Leitzako Landa Goikoan eraikitako etxebizitzetan bizitzen hasi dira jabeak

40 bizitza dira hiru eraikinetan banatuta; horietatik 24 babes ofizialekoak, eta zortzi tasatuak dira

Iñigo Terradillos Leitza

Ia bi urteko lanen ostean, Landa Goikoan eraiki dituzten etxebizitzetara bizitzera sartzeko moduan dira jabeak. Izan ere, enpresa eraikitzaileak eman berri dizkie babeseko izaera duten etxeetako giltzak.

Hiru eraikin berri ditu, beraz, Elgoien auzoak. Horietatik, bik babes ofizialeko etxebizitzak hartu dituzte, eta hirugarrenak, berri, etxebizitza tasatuak.

Babes ofizialekoen kasuan, 16 etxebizitza daude orotara eraikin bakoitzean. Tamaina desberdinetakoak dira hauek, eta, noski, azalaren arabera da prezioa ere. Hala, txikienek 70 m² inguru dituzte, eta hauen prezioa 109.830 eurokoa da. Azalera handiena dutenen balioa, berriz, 133.365 eurokoa da.

Etxebizitza tasatuak, bestalde, zortzi dira, eta hauen prezioa 126.000 eurotik 153.850 eurora artekoa da.

Uzti enpresa eraikitzaileak giltzak banatu ditu, eta etxebizitzaren gainean erreklamaziorik egin beharko balitz, horiek egiteko epea ere zehaztu du. Jabeak hasiak dira etxebizitza berrietara joaten, eta lehen bilerak ere egin dituzte euren artean. Horrela, bizilaguen

lehendakariak ere izendatzen hasi dira.

Hurrengo etxebizitzak

40 lagun babeseko izaera duten etxebizitzetan jabe dira, beraz, Leitzako Landa Goikoan. Bada, aurreroko legegaldian onartu zen plan partzialaren arabera, Landa Behokoan eraikiko liriteke hurrengo babeseko bizitzak. Dena den, Oier Eizmendi Leitzako alkateak adierazi duenez, «proiektu hori egin asmo den arren, oraindik ere itxaron beharko da martxan jartzeko, azken onarpenen zain baitago». Herritarren beharrak hartu zituzten kontuan proiektua egiteko. Etxebizitza gehienak babes ofizialekoak izango liriteke, eta 10 urte inguru beharko dira proiektua amaituta ikusteko.

Hainbat lehiaketa antolatu dituzte gaztetxoentzat

Leitzako eta Aresoko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleek izena eman ahalko dute martxoaren 30a bitarte

I. Terradillos

Aresoko eta Leitzako gaztetxoek Nafarroako Gobernuak aurkeztu dituen hainbat lehiaketetara aurkezteko aukera dute. Hain zuzen ere, literatura, etnografia, deklamazioa, irrati-gidoia eta podcast lehiaketa dira Hezkuntza sailak martxan jarri dituenak. Martxoaren 30era bitarte dute animatzen direnek izena emateko aukera.

Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendutako

ekimena da, eta «ikasleen artean sormena bultzatzea eta, batez ere, euskaraz idazteko zaletasuna piztea» du helburu. 6.700 euro banatuko dira sari guztien artean. Sarietuek erosketak txartelak jasoko dituzte sariaren balioarekin, eta horiek hainbat dendatan erabili ahal izango dituzte.

Narratiba eta poesia lehiaketa, Jose Mari Satrustegi etnografia lehiaketa, bertso idatzien lehiaketa, irrati gidoien lehiaketa eta euskarazko bideo grabaketa lehiaketa dira gaztetxoek aukeratu dituztenak. Lehiaketa bakoitzeko maila ezberdinetan banatuta dago adinaren arabera, eta gaia eta lanaren neurria ere zehaztuta daude.

Aukera polita dute, bada, ikasleek buruari eraginez lan polit baten bidez saritxo bat eskuratzeko.

TAO sistema zabaltzea aztertzen ari da udala

Aldaketak egin bitartean 2011ko txartela baliagarria izango dela adierazi dute udaletik

I. Terradillos Ibarra

Ibarrako udala aparkalekuen TAO sistema zabaltzea eta aldaketa batzuk egitea aztertzen ari da. Dena den, udaletik adierazi dutenez, aldaketak gauzatu bitartean, 2011ko txartela baliagarria izango da.

Iragan urteko azaroan hasi ziren herritarrek eta udala biltzen

herriko aparkalekuen eta TAOren gaia aztertzeko. Lehen bilerak harrera ona izan zuen, eta herritar ugari elkartu zen. Bertan, herritarren eta udalaren artean batzorde bat osatzea adostu zuten. Batzordearen egitekoa Ibarra aparkalekuen gaia aztertu eta arazoari irtenbidea ematea da.

Etxebizitza tasatuen zozketa
Bestalde, udalak jakinarazi du datorren asteazkenean, hilaren 18an egingo dela etxebizitza tasatuen zozketa. Udaletxeko areto nagusian egingo dute, eta 12:00etan hasiko da.

● ibarraldea@hitza.info

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Alegia, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Baliarain,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

Agenda

DEIALDIAK

- **Ikaztegieta.** Sri Lanka bizikletazikus entzunezkoa eskainiko dute gaur, 21:00etatik aurrera udaletxeko areto nagusian.
- **Ikaztegieta.** Herrigintza Elkartek urteko batzarra egingo du gaur, 20:30ean.
- **Anoeta.** Anoeta Zero Zabor taldeak aurkezpena egingo du bihar, 12:00etan udaletxeko pleno aretoan. Herritar guztiak gonbidatzen dituzte aurkezpena joatera.
- **Ikaztegieta.** 2011ko 2. seihiabeteko hondakinen bilketa tasari dagokion ordainagiriak kobratzen hasiko da udala. Ordaintzeko azken eguna martxoaren 5a izango da. Helbideratuta dauden ordainagiriak egun horretan kobratuko dituzte kontutik. Epe hau amaitzean, ordaindu gabeko ordainagiriak eta bankuak itzultzen dituenak, gainordainarekin kobratuko dituzte.
- **Alegia.** Udalak etorkinei zuzendutako alfabetatze eta euskara eskolak antolatu ditu. Gaur da izena emateko azken eguna eta kultur etxean edo gizarte zerbitzuetara jo behar da. Eskolak otsailaren hasi eta maiatzaren bukatuko dira.
- **Amezketeta.** Udalak bat egin du Tolosaldea Sahararekin elkartarekin, eta Sahara bidaltzeko materiala biltzeko kanpaina abiarazi du. Materiala udaletxearen sarreran utzi behar da plastikozko poltsetan: arroza, lekaleak, hegaluzea eta sardinak oliotan, pasta, olioak, azukrea, konpresak, pixoiha-lak, ... Janariarekin batera eskola materiala ere bildu nahi dute. Era berean, diruz lagundu nahi duenak, Kutxako 2101 0067 22 0011180866 edo La Caixako

2100 1758 68 0200077750 kontuetan sar dezake.

- **Anoeta.** Margoketa dekoratiboa izeneko ikastaroa izango da herrian, Kutxak antolatuta. Eskolak otsailaren 9tik abenduaren 20ra bitarte izango dira. Ostegunero bilduko dira Hozpel kaleko udal lokalean, 15:15etik 17:15era. 151 euro balio du ikastaroak, eta materiala aparte ordaindu behar da. Izena urtarrilaren 18tik 25era eman daiteke 902 540 040 telefono zenbakira deituta, edo www.kutxasocial.com webgunean sartuta.

KIROLA

- **Altzo.** Intxurre pilota eskolako partidak izango dira gaur eta bihar, 16:00etatik aurrera. Alegian eta Ikaztegieta 19:00etatik aurrera izango dira.
- **Tolosa.** Usabal kiroldegiko goiko kantzian bihar, honako partidak izango dira: 09:00etatik 09:30era saskibaloia, Take Bedaio-Bergara; 10:30etik 11:30era, saskibaloia, Take Al-daba-Luberri eta Triki Take-Axular; eta 16:30ean eskubaloia, Tolosa-Pulpo kadeteak lehenik eta juniorrak, ondore. Beheko kantzian berriz, areto futbol izango da 09:30etik aurrera, Laskorain-Zaldibia; eta Laskorain-Debarrena, 18:00etan. Futbol zelaian partidak hauek izango dira egunean zehar: Tolosa-Villabona, Tolosa-Mariño, Tolosa-Hernani, Tolosa-Danena, Tolosa-Euskalduna, eta Tolosa-Ikasberri. Mahai tenisa ere izango da bihar, 16:00etatik aurrera: Usabal-Leka Enea. Igandean ere izango dira kirol ekitaldiak; Usabalgo goiko kantzian saskibaloiko Take-Zast ikusteko aukera izango da 12:00etan, eta Ori

ibaian Gipuzkoako Txapelketa-ko estropadak izango dira 12:00etan. 16:30ean Berazubín Tolosa-Hondarribiren arteko futbol partida ere izango da.

- **Tolosa.** Ero Etxe elkartearen 25. urteurrenaren barruan hurrentzako mendi irteera egingo dute igandean. 9 urtetik gorako edonork parte hartu dezake, eta 09:00etan irtengo dira Triangu-loatik. 12:00etan Zerkausian itzuliko dira, eta bertan hamaitakoa banatuko diete.

TXOTXONGILOAK

- **Tolosa.** Enamorise 4 eta 8 urte bitarteko haurrentzako emanaldia, bihar Topic zentron 17:00etatik aurrera. Sarreak euro bakarra balio du, izan ere, ekitaldia Ero Etxe elkartearen 25. urteurrenaren barruan kokatu behar da.

ANTZERKIA

- **Tolosa.** Mugarik Gabe elkarteak Augusto Boalen *Zapalduen Antzerkia* metodologian oinarrituta antzerki eztabaida bilera irekia egingo du gaur, 17:00etatik aurrera, kultur etxeko areto nagusian.

ZINEMA

- **Villabona.** *La voz dormida* filma bihar, Gurea aretoan, 18:30ean, eta 22:15ean; eta igandean 17:00etan eta 19:30ean. Astelehenean, ikuslearen eguna, film bera botako dute 21:30ean.
- **Tolosa.** *Melancolia* filma gaur Leidor aretoan, 19:15ean, eta 21:45ean; bihar, *Gartxot* 17:00etan, 19:30ean eta 22:00etan; igandean berriz ere, ikusi ahal izango da *Gartxot* 17:00etan, eta 19:30ean eta

22:00etan *Jan Eyre* eskainiko dute. Astelehenean, ikuslearen eguna, *Jan Eyre* izango da 20:30ean.



- **Leitza.** *Bertsolari* dokumental- la ikusi ahal izango da herriko zineman gaur 22:30ean, eta igandean, 19:30ean.

MUSIKA

- **Tolosa.** Bonberenean gaur, Rei Kimera eta Kantafior taldeen kontzertua 22:30etik aurrera. Bi taldeak tolosarrak dira, eta biak heavy metala egiten dute. Bihar berriz, Ladislao eta Gramones taldeen txanda izango da ordu berean. Gramones taldeak Ramones talde amerikarraren bertsioak egiten ditu.

BERTSOLARITZA

- **Alegia.** Zazpi Astoren Gainean bertsozale taldeak bertso-afaria antolatu du gaurko. Unai Muñoa eta Ander Lizarralde bertsolariak izango dira afarian. Izen emateko zerrendak azken momenturarte egongo dira herriko tabernetan. Aferia 10 euro inguru kostako da.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. Telefonoa: 112.

BIHAR

- **Tolosa.** Bronte, C.I. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. Telefonoa: 112.

ETZI

- **Ibarraldea.** L. Lejeune, Euskal Herria kalea, 46. Telefonoa: 943 67 32 74.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. Telefonoa: 112.

ETZIDAMU

- **Tolosa.** Bronte, C.I. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan- nen eta irtizien erantzukizunik.

Agurrak

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

●●●● agurrak

**LIZARRIBAR
OINETAKOAK**

MERKEALDIA

1946tik

Arostegieta kalea z/g • TOLOSA • Tel.: 943 67 04 38

INKERNU
jantzigintza

- Diseinuak
- Eraldaketak
- Konponketak
- Artzain-andre jantziak
- Inauterietako mozerroak

Gernikako Arbola 1 behea • TOLOSA • 943 24 43 64 • elvinkernu@gmail.com